

WOMGOAL

Emakumezkoen futbolak gorakada handia izan du. Hala ere, ikusgarritasun gutxi duenez, babes ekonomiko txikia jasotzen du babesleen eta marken aldetik.

Emakume hauen arazo handienetako bat lesioak dira, gero eta gehiago errepikatzen baitira goi mailako jokalarien artean. Izan ere, ez dute bere gorputzerako ekipamendu egokirik, eta gizonaren gorputzerako diseinatutako kirol materiala erabili behar dute, eta horrek arazoak sortzen dizkie. Horregatik, sortuko dugun enpresa emakumezkoen anatomiari egokitutako kirol oinetakoei buruzkoa da.